

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIA

Gasteizko Udaleko Herritar-kontsulten Araudi Organikoari behin betiko onespena ematea

2016ko maiatzaren 27an egindako osoko bilkuran eman zion hasierako onespena udalbatzak Gasteizko Udaleko Herritar-kontsulten Araudi Organikoari. Ez denez inongo erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu horren inguruan, erabaki hori behin betikotzat jo zen 2016ko uztailaren 24an, eta, horrenbestez, indarrean jar dadin, ALHAOn argitaratu beharra dago, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2. artikuluan xedatutakoaren ildotik.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko irailaren 1.ean

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE

Eranskina

Gasteizko Udaleko Herritar-Kontsulten Araudi Organikoa

I. Titulua

Xedapen Orokorrak

1. artikulua. Xedea

Gasteizko udalerrian herritar-kontsultak arautzea da araudi honen xedea, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legean eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean xedatutakora egokituz.

2. artikulua. Kontzeptua

Herritarren partaidetzarako tresna bat izango da herritar-kontsulta, Gasteizko Udalak herritarren iritzia jakiteko sustatua, zein bozketa-sistema baten bitartez gauzatuko baita, interes publiko orokorreko eta udal eskumeneko gai lokalen inguruan.

3. artikulua. Kontsultaren eremua

Herri-galdeketak: kontsultak, emaitzak edo ondorioek herritar guztiei eragingo badie, edo, adibidez, Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean definitutako sistema orokorrari.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 80. artikuluan jasota dauden herri-galdeketetara moldatuko dira kontsulta horiek.

Sektoreko edo lurralde-eremu mugatuko kontsultak: kontsultak, emaitzak edo ondorioek udalerriko lurralde-eremu jakin bati edo udalerrriaren zati bati baino eragingo ez badio, edo, esate baterako, Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean definitutako sistema lokalari.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 81. artikuluan jasota dauden sektoreko edo lurralde-eremu mugatuko galdeketetara moldatuko dira kontsulta horiek.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak, 82. artikuluan, orobat ematen du aukera izaera lokaleko herritar-kontsulta irekiagoak egiteko. Era horretako kontsultak egitera ere jo ahal izango du Udalak, baina ez dira araudi honen gai.

4. artikulua. Printzipioak

Printzipio hauei erantzungo diete herritar-kontsultek:

Gardentasuna, publikotasuna, argitasuna, informazioa eskuratzeko aukera, erakunde-neutralitasuna, interes kolektiboaren nagusitasuna, dibertsitatea, debate publikoa, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, gizarte-inklusioa, eraginkortasuna, datu pertsonalen babesa eta kontuak ematea.

Printzipio horiek betebeharrak izango dira Udalarentzat, eta eskubide eta bermeak kontsulta-prozesuan parte hartzeko legitimatutako pertsonentzat, araudi honetan xedatutakoaren ildotik.

5. artikulua. Kontsultaren xede diren gaiak

Udal eskumenekoak diren gaien inguruan egin ahal izango dira herritar-kontsultak. Bazter geratuko dira legezkotasuna urratuko luketen kontsultak —edo halako emaitzak izan litzaketenak—, eta, bereziki, giza eskubideak urratzea ekarriko luketenak eta ogasun lokalari, Udalaren finantza-egonkortasunari edo udalerrriaren lurraldetasunari eragingo lioketenak.

6. artikulua. Bozkatzeko legitimatutako pertsonak

Oro har, 18 urtetik gorako pertsona fisiko guztiek —bozketa hasteko unean adin hori bete dutenek— izango dute herritar-kontsultetan parte hartzeko eskubidea, baldin eta kontsulta-deialdia egin zen unean udalerrian erroldatuta bazeuden.

Salbuespen gisa, kontsulta-prozesuaren objektu den gaiaren arabera, atzerritar egoiliarrek ere parte hartu ahal izango dute herri-galdeketa horietan, baita bozketa hasteko unean 16 urte beteak dituzten adingabeek ere. Kasu horretan, biztanleen udal erroldak osatuko du boto-emaitza errolda, eta toki-erakundeko idazkariaren eskumenekoa izango da egokitzapen hori egitea.

Sektoreko edo lurralde-eremu mugatuko kontsulten kasuan, deialdia egiten den unean udalerriko lurralde-eremu horretan erroldatuta dauden 16 urtetik gorakoak izango dira —bozketa egiteko unean adin hori bete dutenak— bozkatzeko legitimatutako pertsona fisikoak.

Araudi honi dagozkionetarako, interesduntzat akreditatu ahal izango dute beren burua Herritar Erakundeen Udal Erregistroan izena emanda dauden organizazio profesionalek, organizazio sozialek eta nortasun juridikoa duten bestelako entitateek, baita beren xede sozialak kontsultaren gaiarekin zerikusia duen taldeek ere, hori kontsulten organo instrukzio-egilearen aurrean behar bezala egiaztatzen dutelarik.

7. artikulua. Galderaren formulazioa

Kontsultan galdera bat edo batzuk egingo dira, modu labur, argi eta errazean formulatuta, herritarrek ondorioak ongi ulertzerik izan dezaten, eta horren arabera baiezkoa edo ezezkoa ematerik.

Behar izanez gero, baina salbuespen gisa, hainbat konponbide edo erantzun aukeran emanez formulatu ahal izango da kontsulta, horietako baten edo besteren aldeko botoa eman dezaten boto-emaitzeak.

Galderetako bati ere erantzuten ez bazaio, boto zuritza joko da.

8. artikulua. Kontsulta-deialdia nahiz kontsulta bera egiteko baliatu ezingo diren aldiak

Bozkatzeko aldiak ez du bat egingo hauteskunde-aldiekin. Ez kontsulta-deialdirik ez kontsultarik ezingo da egin udalerriri eragiten dioten edozein esparrutako hauteskundeetarako deialdia egiten denetik hasi eta hauteskunde horiek egiten diren arteko aldiak. Are zabalagoa izango da eskusio-aldi hori udal hauteskunde kasuan, horiek egin baino 90 egun natural lehenago arte ekarriko baita, eta 90 egun naturalez luzatuko, udal gobernu berriak kargua hartzen duen egunetik aurrera.

9. artikulua. Kontsulta-deialdiak

Hurrengo urteko herritar-kontsultak egingo diren datak finkatu beharko ditu urtero alkateak, araudi honetan ezartzen diren epeak aintzat harturik.

10. artikulua. Mugak

Urtean gehienez bi kontsulta egin ahal izango dira, nahiz eta prozesu berean galdera bat baino gehiago egin ahal izango den, edo kontsulta-gai bati baino gehiagori buruz galde egin. Hainbat kontsulta-ekimen kontsulta-prozesu beraren baitan biltzen ahaleginduko da alkatea, baliabide publikoak eraginkortasunez kudeatze aldera.

Organo eskudunak kontsulta-prozesuari hasiera ematen diolarik, ezingo da gai berari edo antzeko besteren bati buruzko beste kontsultarik sustatu harik eta lau urte igaro arte, kontsulta hori egiten denetik.

11. artikulua. Lotesletasuna

Herri-galdeketen kasuan, emaitzak lotesleak izango dira, baldin eta osorik edo zati batean egitea eragozten duen lege-araurik ez badago. Ez, ordea, sektoreko edo lurralde-eremu mugatuko kontsulteren kasuan. Nolanahi ere, azken erabakia kontsultaren emaitzetatik aldentzen bada, berariaz azaldu beharko dira erabaki hori justifikatzen duten arrazoiak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legean jasota dagoen bezala.

12. artikulua. Kontsultak onestea

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 71. artikuluan eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legean xedatutakoaren ildotik, udalbatzaren gehiengo osoak hala erabaki eta Estatuko Gobernuaren baimena jasotzen duelarik joko da onetsizat kontsulta, dela erakunde-ekimenekoa, dela herri-ekimenekoa.

Udalbatzaren gehiengoak ezetsi egiten badu, arrazoitu egin beharko da, eta egoki diren administrazio- edo jurisdikzio-errekurtsoak aurkeztu ahal izango dira.

II. Titulua

Kontsultak Sustatzeko Ekimena

Lehen kapitulua. Erakunde-ekimena

13. artikulua. Erakunde-ekimena

Udal talde politikoei dagokie erakunde-ekimena. Udal eskumeneko gaien ingurukoa izan beharko du ekimenak, eta, nagusiki, munta bereziko izaera lokaleko gaien ingurukoa, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legean eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legean xedatutakoaren ildotik —bost milioi euroko aurrekontua gainditzen duten proiektuak oro joko dira munta berezikotzat—.

14. artikulua. Erakunde-ekimena nola aurkeztu

Dokumentazio hau erantsi beharko zaio kontsulta egiteko proposamenari, onartuko bada:

Kontsultan egin nahi diren galderen testu zehatza.

Kontsulta egoki eta komenigarri egiten duten arrazoiak azaltzen dituen oroitidazkia.

Kontsultaren eskumen- eta lurralde-eremua.

15. artikulua. Erakunde-ekimena onestea

Udalbatzak erakunde-ekimena onetsi edo ezesteko gehieneko epea 10 egunekoa izango da, eskabidea jasotzen denetik.

Berorren aurrean errekurritu ahal izango da erabakia, baita administrazio-errekurtsioen eta auzi-errekurtsioen bitartez ere.

Proposamenaren gaineko arauzko txostenak egin beharko dituzte kontsulten organo instrukzio-egileak, Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiak, eragindako arloko zuzendariak, kontu-hartzaile nagusiak eta Udalerriko Gizarte Kontseiluak.

Bigarren kapitulua. Herritarren ekimena

16. artikulua. Kontsulta sustatzeko legitimatutako pertsonak

Herritarren ekimenaren batzorde sustatzaileak hura sinatzen dutenen ordezkari gisa jardungo du kontsulta bultzatzeko orduan. Udalerrian errolatutako 18 urtetik gorako gutxienez hiru pertsonak osatu beharko dute —zein ezingo baitira izan herritarrek inongo erakunde publikotarako hautetsitako ordezkariak—, edo Herritar Erakundeen Udal Erregistroan izena emandako pertsona juridiko batek.

17. artikulua. Herritarren ekimena aurkeztea

Herritarren ekimenaren eskabidea udalbatzari zuzendu beharko zaio, horretarako formula-ria baliatuz, eta erregistroan aurkeztu, honako hauek adierazten direlarik:

Kontsultan egin nahi diren galderen testu zehatza.

Kontsulta egiteko arrazoiak.

Batzorde sustatzailea osatzen duten pertsonen identifikazioa, beren datu pertsonalekin eta sinadurarekin. Sustatzaileak entitateak badira, beren gobernu-organoen erabakiaren ziurtagiria erantsi beharko dute.

Kontsulta egitea proposatzen den lurralde-eremua.

Batzorde sustatzaileak Udalaren —Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuaren— aholkularitza eskatu ahal izango du, kontsulta egin aurreko debate publikoa hobetu eta aberasteko.

18. artikulua. Kontsulta-ekimena onartzea

10 egun naturaleko epean —aldez aurretik kontsulten organo instrukzio-egileak eta Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiak aldeko txostena egiten dutelarik—, ekimena onartzen den ebatzi beharko du udalbatzak. Kasu hauetan bakarrik ezetsi ahal izango da:

Araudiaren arabera kontsulta egin ezin den gaia bada.

Proposamena egin duten pertsona edo organizazioek ezarrita dauden baldintzak betetzen ez badituzte.

Gai horren edo analogoaren inguruko kontsulta egin zenetik lau urte igaro ez badira.

Funtsik gabea bada, nabarmen.

Egin nahi den galderak nahasmena sor badezake.

Onartzen ez bada, bidezko diren administrazio-errekurtsioak nahiz auzi-errekurtsioak aurkeztu ahal izango dira.

19. artikulua. Sinadura-orria baliozkotzat jotzea

Onartzea ebatzi ondoren, gehienez 10 egun naturaleko epean helaraziko dizkio kontsulten organo instrukzio-egileak —Udalak— batzorde sustatzaileari baliozkotzat jotako sinadura-orriak —zeinek proposatzen den galdera eta horren arrazoiak, izen-deiturak, helbidea, nortasun-agiria eta sinadura idazteko hutsuneak izango baitituzte—.

Baliogabetzat joko dira baliozkotzat jo ez diren orrietan jasotako sinadurak, eta artikuluko honetan adierazten diren datuak modu argi eta ulergarrian jasotzen ez dituztenak.

Batzorde sustatzailearen ardura izango da sinaduren egiazkotasuna bermatzea, eta dagozkion erantzukizunak egotziko zaizkio horiek faltsuak gertatuz gero.

Sinadura elektronikoak biltzeko sistema bat garatu ahal izango du Udalak, arau-esparruaren baitan eta posible zaion neurrian.

Sistema horrek, nolatan ere, honako hauek bermatu beharko ditu beti:

Parte-hartzailearen identifikazioaren segurtasuna.

Pertsona ber batek bi bider edo gehiagotan ezingo duela sinatu.

Zuzenean dena delako pertsonak berak sinatzen duen segurtasuna.

Nahikoa gardentasun, behaketa eta gainbegiratze independente eta ongi funtsatua egiterik izan dadin.

20. artikulua. Beharko den sinadura-kopurua eta horien egiaztapena

Herri-galdeketeran: baliozkotzat jotako sinadura-orriak ematen diren unean erroldatuta dauden 18 urtetik gorako pertsonen ehuneko 10, gutxienez.

Sektoreko edo lurralde-eremu mugatuko kontsultak: baliozkotzat jotako sinadura-orriak ematen diren unean delako lurralde-eremuan erroldatuta dauden 16 urtetik gorako pertsonen ehuneko 10, gutxienez.

21. artikulua. Sinadurak biltzeko epea

Gehienez ere 90 egun naturaleko epean bildu beharko dira sinadurak, baliozkotzat jotako sinadura-orriak ematen direnetik.

Arazoi justifikatuak direla medio, gehienez 30 egun naturaleko luzapena eskatu ahal izango dio batzorde sustatzaileak alkateari.

22. artikulua. Sinaduren egiaztapena

Kontsulten organo instrukzio-egileak —Udalak—, gehienez 15 egun naturaleko epean, sinaduren zenbaketa egingo du, eta sinatzaileen identitatea Udal Erroldan egiaztatuko.

Epe horretan bertan, jasotako sinadura baliiodunen kopurua ziurtatuko du Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiak, hots, araudi honetan ezartzen diren betebeharrak betetzen dituztenena.

23. artikulua. Herritarren ekimena onestea

Udalbatzari dagokio kontsulta egin dadila onestea, gehiengo osoz, herritarren ekimena baliatzeko ezarritako baldintza guztiak betetzen direlarik.

Gehienez 40 eguneko epean hartu beharko da erabakia, sinadurak ziurtatzen direnetik kontatuta, kontsulten organo instrukzio-egileak, Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiak, eragindako arloko zuzendariak, Kontu-hartzailetza Nagusiak eta Udalerriko Gizarte Kontseiluak arauzko txostenak egin ondoren.

III. Titulua

Kontsulta-Prozesua

Lehen kapitulua. Deialdia

24. artikulua. Deialdia

Alkateak, udalbatzaren gehiengo osoak hala erabaki eta Estatuko Gobernuak baimena ematen duelarik, herritar-kontsultarako deialdia egiteko ebazpena eman ahal izango du.

Hainbat ekimen deialdi berean biltzeko ahaleginak egingo dira, 10. artikuluan xedatutakoaren ildotik.

Alderdi hauek hartu beharko ditu bere baitan deialdiaren ebazpenak.

Kontsultaren lurralde-eremua.

Kontsultako galdera edo galderak.

Bozketa-sistema.

Informazio-kanpaina: epeak eta informazio-bideak.

Bozketa-aldia.

Bozkatzeko lekuak.

Kontsulta-mahaietako sistemak eta prozedura.

Kontrol Batzordearen hasierako osaera.

Udal langile gaituak.

Deialdia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik 90 egun igarotzen direlarik eta urtebete igaro aurretik egin beharko da kontsulta.

Aurreko paragrafoan adierazitako argitalpen hori gauzatu ondorengo bost egunetan, udalaren web orrian, iragarki-taulan eta dena delako lurralde-eremuan zabalkunderik handiena duten hedabideetan argitaratuko da deialdia.

25. artikulua. Informazio-kanpaina eta debate publikoa

Informazio-kanpainaren baitan debate publiko bat izango da, zeinen bitartez hainbat eratako ekintzak zertuko baitira, metodologia desberdinak direla medio, iritzi eta argudioak kontrastatzeko eta partaidetza bultzatzeko.

Gutxienez 30 egun natural eta gehienez 90 hartu beharko dituzte informazio-aldiak eta debate publikoak, zeinen baitan informazioa emateko eta beren jarrerak azaltzeko ekitaldiak egin ahal izango baitituzte batzorde sustatzaileak, talde politikoek eta organizazio sozial eta profesional interesdunek.

26. artikulua. Udal espazio eta baliabideak

Udalak zehaztuko ditu informazio-kanpainarako eta debate publikorako baliatu ahal izango diren espazio publikoak, baita horien banaketa ere, zeinek jarrera desberdinen arteko ekitate-eta proportzionaltasun-printzipioak errespetatu beharko baititu. Horiek bete daitezela zaindu beharko du Udalak —Kontrol Batzordeak—.

Irisgarritasun unibertsala bermatuta dagoen espazioetan egin beharko da kontsulta-prozesu osoa.

Espazio bat eskainiko die Udalak bere web-orrian kontsultaren gaiaren inguruko iritzi desberdinei.

Komunikazio-kanpaina bat diseinatuko du Udalak, aldez aurretik Eledunen Batzarrari eta batzorde sustatzaileari kontsulta egin eta horietan jorratu ondoren.

Hauteskunde-aldian erakunde orok bete beharreko neutraltasun-printzipioei erantzun beharko die.

Kontsulta-prozesuaren edozein unetan pertsonak diskrimina daitezela galarazteko beharrezko diren neurriak aplikatzen direla bermatu beharko du Udalak.

Bigarren kapitulua. Bozketa-sistema

27. artikulua. Boto-emaileen zerrenda

Deialdiaren ebazpenaren ildotik, kontsultan bozkatu ahal izango duten pertsonen zerrenda egingo dute udal zerbitzuek. Horretarako gaitutako udal langileek eta udal taldeek bakarrik kontsultatu ahal izango dute zerrenda hori.

Errolda kontsultatzeko modu bat prestatuko da, eta erreklamazioak aurkezteko 10 eguneko epea emango, ekimena onesten denetik.

28. artikulua. Bozkatzeko moduak

Araudi honetan ezartzen diren bozketa-moduen bitartez gauzatuko da partaidetza herri-tar-kontsultetan, eta botoa unibertsal, berdina, askea, zuzena eta ezkutukoa izango da.

Botoa presentziala izango da herri-galdeketen kasuan, eta presentziala nahiz ez-presentziala izan ahalko da sektoreko edo lurralde-eremu mugatuko kontsultetan nahiz Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legean jasotzen diren irekiagoetan.

29. artikulua. Bozketa-aldia

Modu presentziala: egun bat.

Modu ez-presentziala: sei egun natural, modu presentzialean bozkatzeko egunaren aurretik.

30. artikulua. Boto presentziala

Kontsulta-mahaietan eman beharko da, deialdiaren ebazpenean adierazten den egunean, horretarako ezarritako aldian eta orduetan.

Boto-emailea parte-hartzaileen zerrendan dagoen egiaztatuko da.

Boto-papera gutun-azal batean itxi eta hautestontzian sartuz bozkatuko da.

Ahal izanez gero, kontsulta-mahaietan bozketa presentzial elektronikoa ahalbidetuko duen sistema informatiko bat baliatuko da.

Irisgarritasunaren alorreko legedia aintzat hartu beharko da, irisgarritasun unibertsal bermatzeko.

31. artikulua. Boto ez-presentziala

Baliabide elektronikoen bitartez zertuko da, udal baliabideak besterik erabili gabe.

Honako hauek bermatu beharko dira:

Parte-hartzailearen identifikazioaren segurtasuna.

Pertsona ber batek bi bider edo gehiagotan ezingo duela sinatu.

Botoaren sekretutasuna.

Boto elektronikoaren eta posta ziurtatuaren bidezkoaren segurtasuna.

Gardentasuna —behaketa eta ikuskapen independente eta oinarritua egiterik izan dadin—.

32. artikulua. Kontsulta-mahaiak

Deialdiaren ebazpenean zehaztuko dira mahai horiek.

Gutxienez bi pertsonak —udal langilek— osatuko dituzte, zeinetatik bat lehendakari izango baita.

Kontsulten organo instrukzio-egileak —Udalak— egingo du mahaiko kideen hautaketa, beren burua boluntario aurkezten duten udal langileen arteko zozketa dela medio.

Hau ek egon ahal izango dira mahai horietan, behatzaile gisa:

Udal talde politikoek nahiz —nortasun juridikoa izanik— beren burua interesduntzat akreditatzen duten organizazio eta taldeek proposatutako pertsona bana, mahai bakoitzeko.

Hala eskatzen duen edozein herritar, banako gisa —gehienez hiru—.

Mahaietako kide izateko proposamena edo eskabidea egiteko epea ez da 45 egun naturaletik gorakoa izango, deialdia egiten denetik.

Udal edo hiri-esparruko kontsultetan, gizarte etxe bakoitzeko gutxienez kontsulta-mahai bat bermatu beharko da.

33. artikulua. Kontsulta-mahaien eginkizunak

Araudian onartzen zaien parte hartzeko eskubidea baliatu nahi dutenei lagundu.

Parte hartzera deitutako pertsonak identifikatu.

Parte hartzera deitutako pertsonen zerrenda zaindu, botoa emateko baimena eman eta parte-hartzaileen erregistroa eraman.

Erantzunen behin-behineko kontaketa publikoki egin eta aktan jasota utzi, izandako gora-beherekin batera.

Kontsulta egiteko beharrezko den materialaren antolamendua zaindu.

Kontsulten organo instrukzio-egileak —Udalak— agintzen dion beste edozein.

34. artikulua. Boto-kontakteta

Bozketa-aldia bukatzen delarik, kontsulta-mahaien eginbeharra izango da emandako botoen kontaketa egitea, eta kontsultan egindako galderek jasotako erantzunen emaitza zehaztea.

Leku publiko batean egin beharko da kontaketa.

Behatzaileei eta Kontrol Batzordeari eman beharko zaizkie kontaktetaren emaitzak.

Deialdirako finkatutako ereduarekin bat ez datozen boto-paperak baliogabetzat joko dira, baita emandako iritzia oker ulertzea lekarketen edo hori baldintza dezaketan aldaketak izan dituztenak ere.

35. artikulua. Emaitzak jakinaraztea

Kontakteta bukatzen delarik, kontsulten organo instrukzio-egileari emango diote emaitzen akta mahaietako lehendakariak, izandako gorabeheren zerrenda eta horien inguruan hartutako erabakiak jasotzen dituen agiriarekin batera.

Ekitaldi publiko batean eman beharko du alkateak emaitza ofizialen berri, gehienez ere 7 eguneko epean, jasotzen dituenetik.

36. artikulua. Udalaren posizionamendua, emaitzak direla eta

Gehienez 30 egun naturaleko epean —bozketaren emaitzaren ebazpena ematen denetik, edo izandako gorabeherak ebazten direnetik—, organo eskudunak publikoki eta modu arrazoituan agertu beharko du nola txertatuko den kontsultaren emaitza gobernu-ekintzan, behar izanez gero.

IV. Titulua

Berme-Sistema

37. artikulua. Berme-sistema

Kontsulta-prozesuaren fidagarritasuna, gardentasuna, neutraltasuna eta objektibotasuna bermatzea izango du xede berme-sistemak, baita aplikagarri zaion erregimen juridikoa betetzen dela ere. Kontrol-batzordeak garatuko du berme-sistema.

38. artikulua. Kontrol-batzordea

Prozesua behar bezala garatzen dela eta araudi honetan jasotzen diren printzipioak errespetatzen direla zaintzeaz arduratuko den organoa izango da.

Kontsulta-prozesu bakoitzeko kontrol-batzorde bat eratuko da, edozein delarik ere kontsultak hartzen dituen ekimenen eta galderen kopurua.

Autonomiarekin eta independentziarekin jardungo du.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen II. tituluko II. kapituluan organo kolegiatuei dagokienez xedatzen denak arautuko du Kontrol-batzordearen funtzionamendua.

39. artikulua. Kontrol-batzordearen osaera

Udalbatzaren Idazkaritza Nagusia edo hark ordezeko izendatzen duena.

Kontsulten organo instrukzio-egilearen ordezkari bat.

Batzorde sustatzailerik badago, haren ordezkari bat.

Udal talde politikoen ordezkari bana.

Beren burua interesduntzat akreditatzen duten organizazio eta taldeen ordezkari bana.

Udalerriko Gizarte Kontseiluaren ordezkari bat.

Osatuko duten pertsonen kopurua:

Kopuru bakoitia; gutxienez 3 lagun eta gehienez 15.

Erabakien neutraltasuna behartu beharko du osaerak, nahiz eta talde politikoetako kideek, batzorde sustatzaileak nahiz beren burua interesduntzat akreditatu duten organizazioen ordezkariak jarrera jakin bat azaldua izan kontsultaren gainean. Ahaleginak egingo dira beren burua interesduntzat akreditatu duten organizazioetako kideen artean kontsultaren gaien inguruan jarrera desberdinak dituztenak presente egon daitezen.

Eusko Jaurlaritzaren Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea —martxoaren 2ko EHAA— ekarri zuten printzipio orokorren ildotik, gizon eta emakumeen presentzia orekatua bermatu beharko da kontrol-batzordearen osaeran.

Horri dagokionez, ordezkapen orekatutzat joko da sexu batekoen nahiz bestekoek presentzia gutxienez ehuneko 40koa izatea. Kasuren batean, inplikaturako kolektibo edo organizazioen izaeragatik, ezinezko bada batzordea modu paritarioan eratzea, idatziz jasota utzi beharko dira horren arrazoiak.

Gehienez 15 egun naturaleko epean, kontsultarako deialdia argitaratzen denetik, Kontrol-batzordeko kide izateko nahia agertu ahal izango zaio kontsulten organo instrukzio-egileari —Udalari—, idatziz.

Kontsultarako deialdia egin ondorengo hogeita bost egun naturaletan erabakiko du bere azken osaera Kontrol-batzordeak, eta Udalak —emaitzak direla eta— bere posizionamendua publiko egiten duelarik bukatuko da beraren agintaldia.

40. artikulua. Kontrol-batzordearen eginkizunak

Hauek izango dira Kontrol-batzordearen eginkizunak:

Kontsulta-prozesuaren faseak behar bezala garatzen direla zaindu.

Araudi honetan jasotzen diren administrazio-egintzen jarraipena egin.

Kontsulta-prozesua garatzeko gomendioak eman, baita deialdia egiten duen organoari eta organo instrukzio-egileari egokitzat jotzen duena proposatu ere, kontsulta-prozesua garatzeko berariazko arauak osatzeko.

Emaitzen kontaketa berrikusi, eta emaitzen azken dokumentua gora bidali.

Araudi honetan edo deialdiaren ebazpenean beraren gain uzten diren gainerakoak.

V. Titulua

Udalaren Administrazio-Antolakuntza

41. artikulua. Kotsulten organo instrukzio-egilea

Udaleko Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuko burua izango da kotsulten organo instrukzio-egilea, laguntzaile dituelarik Partaidetza, Gardentasun eta Gizarte Etxeen Saileko zuzendaria eta Udal Aholkularitza Juridikoko burua edo horiek ordezkotza izendatzen dituztenak.

Kotsulten organo instrukzio-egilearen eginkizunak:

Kontsulta-prozesuak onetsi eta deialdia egiteko organoari sostengu administratiboa eman.

Kontsulta-prozesua garatzeko beharrezko diren zerbitzu tekniko eta arloei deitu, jarraibideak eman eta koordinatu.

Herritarren ekimeneen kasuan, egingo den galderaren eta kontsulta-eremuaren inguruko adostasuna lortu batzorde sustatzailearekin, alkateak ebazpena eman aurretik.

Kontsulta-prozesu osoaren inguruan sortzen diren kexa, kontsulta eta gorabeherak ebatzi, gehienez 15 egun naturaleko epean.

Ordezkariek izendatu, kontsulta-mahaien eraketan, bozketan eta kontaketa presente egon daitezten.

Kontrol-batzordeari kontsulta-prozesuaren garapenarekin zerikusia duen guztiaren berri eman, faseetako bakoitzean.

Araudi honetan beraren gain uzten diren gainerakoak.

Kotsulten organo instrukzio-egilearen erabakien kontra errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Kontrol Batzordearen aurrean, eta horren ebazpenaren kontra, berriz, ohiko administrazio-errekurtsio eta auzi-errekurtsioak.

42. artikulua. Herritar-kotsulten Erregistroa

Udalaren menpe —Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuaren menpe—, erakunde-ekimenez nahiz herritarren ekimenez sustatzen diren Herritar-kotsulten Erregistroa sortuko da.

Erregistro horretan honako hauek jasoko dira: sustatzaileak, kotsultetako galderak, bozketan parte hartu duten pertsonak eta boto-kontaktaren azken emaitza.